

<b>Izenburua</b>	<i>Euskararen herria ehuntzen</i> unitate didaktikoa
<b>Formatua</b>	Unitate didaktikoa
<b>Egilea</b>	Ikastolen Elkarte eta Euskaltzaindia
<b>Nori zuzendua</b>	Batxilergoko ikasleei
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskararen biziberritzeari beste bultzada bat emateko, euskararen iraganeko, egungo eta etorkizuneko egoeraren inguruko hausnarketa bultzatzea euskararen lurralde guztietako gazteengan.</li> <li>● Ikerketa baten bitartez, ikasleak gai baten inguruan aditu bihurtzea, ekintza-komunikatibo bat burutzea eta proposamen hori Euskaltzaindiarekin partekatzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Taldeka egingo dute lan ikasleek</li> <li>● Talde kooperatiboen teknikak erabiliko dituzte</li> <li>● 6 ikerketa-ildo eta ekintza-komunikatibo daude. Irakasleak erabakiko du zein ikerketa-ildo jorratu eta zein ekintza-komunikatiborekin konbinatu. Bakarra edo 6ak egin ditzake.</li> <li>● Bi talde mota (ikasleak nahastu egingo dira): <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Urgazle</i> taldeak: taldeko kide bakoitza aditu bihurtuko da gai batean, ikerketa-ildo baten bitartez, eta taldean bukaerako ekintza komunikatiboa burutuko dute ikasitakoarekin.</li> <li>○ Aditu-taldeak: gai bakoitzeko aditu izango direnek ikerketa batera burutuko dute.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Denboralizazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Irakasgai bakarrean edo disziplinarreko proiektu baten bitartez landu daiteke: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Irakasgai bakarrean: hiruhilabete bat</li> <li>○ Disziplinarreko proiektuan: 21 ordu</li> </ul> </li> <li>● Lanketa sakona da, beraz, tarteka egun libreak uztea gomendatzen da.</li> </ul>
<b>Eranskinak</b>	Unitatea eskuragarri:

<https://euskararenherriaehuntzen.euskaltzaindia.eus/>